

Euskal-ikasle ugaridun izan da Gasteizko Seminarioa. Erdera utsa erabilli da bertan —edo izan da bere izkuntza—, eta euskal abestirik errugabeena ere itzulita kantatu bear izan da, jaialdiren baten "Agur jaunak" abestia kantatu zana bere, aldiz aurretik itzulia izan bear zalarik.

Euskal kulturari buruz iñoiz ez ei da berbarik egin, ezta Euskalerraren arazorik aitatu be izan.

Diktadura edo Franco'ren denboretako azken urteetan gauzak zeozer aldatzen asten dira. Euskal-Eleizeak ez errezago baina bai egitan kristiñauago eta eskubideakandik urrago, baita erosoago bizi dau bere bizitza.

Sortzen dira eritxi eta polemikak Komunitateko euskal-siñismendunen artean, barru eta kanpoko aldean; ez bardiñetako zioak, zergaitiak dirala-ta (exzepzioko egoerak, Añoveros kasua, "23-F"), "LOAPA").

Orain, joan dan bagillean 11an salaketa au agiri da: "grave hegemonía del nacionalismo de la Iglesia Vasca". Salaketa zikiña froga konkreturik gabe eginda. Esan oi da ez dala "intelectual" bat onelakorik esan bear leikena, gitxiago ondiño abade bat. Baieztatzen da "lo desatendidos que hoy se encuentran por nuestra Iglesia los fieles que no son de ideología nacionalista". — Barriro be erasoka betiko leloari ekiten dautsoe.

Esandako salaketa ori, ezeren oiñarririk ez daua, euskal-Eleizarako "kalumnias", gezur-gaizto biurtzen da. Izenpetzaileraren artekoetan dagozan lau abadeek ez ei dabe ezagutzen "dokumentu" edo argibide ori, ezta ikusi be ez dabela egin eta siñatu egitea be ukatzen dabelarik, guzurraren susmoa damotso gaiari.

Gainera "alegato" orren agerpena auteskundeen bexperetan, edo, izanik, au ulertzeko ez da alegin aundirik egin bear jakiteko nundik datorren arasoa

"electoralista" usain larregi daroala urrunetik asma-tzen dalako baita.

Azkenez, oneri geitu bear izango deutsagu, euskal-eleizeak bakeagaitik egiten dauan alegiñari, onelako jokabideak ez deutsola onik egiten, ostera izugarrizko arrikadea emoten jakola gaiari, ez bes-terik.

**Larrondo**

### **MENDIA**

Gora goraka dagoz  
euskal mendi ederrak  
urdintasunpean;  
Kalamua eder da  
lagunekin izketan  
Bizkai magalean.

Amesgarria zagoz  
zugatzak aldapetan  
ta arkaitzak puntan;  
ardiak dabiltz pozik  
janariak gozartzen  
bedartz orleietan.

### **JAKITURIA**

Giza jakituria  
loreetan lore zara  
urrezko argia;  
eguzki bera baiño  
argiagoo zara  
itz sinisgarria.

Jakituria itza  
Kurutzatik jatorku  
maitasun tartean;  
odolez argitu zan  
giza errukarria  
itxaropenean.

**Paulin**